Euzkadi

Lamiñak eta neskatillia

Beñola, goizalde baten Goitsu ta Ane Bolunzuloko etxagun alargunaren semealaba on eta begikoak, Iñungane mendira abarten juan ziran. Goizalde aretan, Ilargarra aldeko izarrak margo politez ikusgarri agertzen ziran. Eta batera ta betera birak bizkor egiñaz, neska-mutillen ikusgarri, jolas politean ebiltzan. Ortzeko izar dizdiratsuak zenbatuten joizan gaztek urrengo abestia abestzen asi ziran.

Biotz eder bat dago
Odeien ganian
An da neure maitia
Izar'en artian.
... ...

Abesti onekaz. Erliabe'ko atx-bide luzea beingoan eldu ziran. A , neskeak jarraitu eutson nebeari, aurrera jarrai bear zala, ira-asmel batzuk eginda burkadia beingo gertetako. Aurrera jarrai eban be; Kobagorri ingurura eldu zanian, zuzenean arte batetik lamiña dotore bat berarantza joiala ikusi eban. Lamiñak, txingarra baño gorrijago zan jantzi apaiñ bat eban soñian; samako iduztun ederrak argi-argi egiten eutson, eta buruan eban orrazi doradak margo polit asko egiñaz, bere bularra ikusgarri egiten eban.

Lamiña, urreratu ta laster iñun diran bera gozo ta labanakaz neskea atsegindu eban asi zan. Eta soñian eban iduztun ederra, Onetxu'ren samatik dingiliz ipiñi eban; baita arri-bitxidun erestun eder bat be, neskeari eskumako atzamar nausian sartu eutson. Erestun ederra atzamarrian sartziaz, neskearen biotzak taupada andi bat egiñ eban, eta erestun mirarizkoa neskearen eskuan beingoan urtu ta erazu zan. Orduban lamiñak, asarre bera "Maitasun'en baten berotasuna ala dona...? esanda, biotzaren ganian esmeko eskua imini eutson. Onetan, Goitsu mutilla bere burdi ta guzti urreratu zan; eta lamiñaen arerijo andia zan akulukada andi bat bizkarrian emonda beingoan bialdu eban Kobagorri'-ra.

Neba-arrebok aurrera jarrai eben, eta baño len Iñunganen ziran. Asmel anak egiñaz, burkada ira ederra beingo ben pillotu eben. Eguerdi ingurua zalata, bazkaltzeko asmuan Sorabil'go iturrira jatsi ziran. Su andi ta ederra egin barija amaitu baño len, beste lamiña ta eta burduntzikua jaten asi ziran. Agertu ta ondoan jezarri yakeen. Arek One'ri iduztun eder bat imini eutson; Goitsu'ren ondora juanda, mutillari be txiko gorri bat iminten asi yakon. Bolunzulo'ko mutilla asarre bizijan jarri; eta eskuetan eban burduntzi goria lamiñari matrallatik sartu eutson. Orduan lamiña, uluka ta garrazika dear andiz asi eta mutillari begirakune zorrotza egiñaz esan eutson.—Eure biotza, iñoren eguzkiaren gozoak ez al-yok gozotuko; ta bizitza guztian, ara ta ona atseden barik *barik* ibiliko al-az.

Lamiña'ren zaratetara, Kobagorri'ko lamiña guztiak Sorabilleratu ziran. Mutillari lepoa ondo berotu eutsoen, eta neskea artuta koba'ra eruan eben. Goitsuk, baten etxerantzakuari emon eutson. Ebazan zartadak baño bere arrebaren eta negar geijago egian. Illundu ta bigarrenian etxia jo eban; eta aitaren zuzen juan zan. Bolunzulo'ko etxasemea aiñ arpegi ben eta tamaltsuaz barik ikustian errime ikeratu zan, esan eutson.

—Nun dok arrebea?
—Or gelditu da.
—Nun baña? Egunaren argiak igazi dazan ordu bi baño geijago dok... Eta ordu eure arreba barik ator...? Landa ala Arridun gelditu dok?
—... Kobagorri'ko lamiñak eruan dan da be...

Kobagorri izena entzutian, Bolunzulo'ko aitak dar-dar egiñ eban. Eta arpegia zuriz estalduta negarrez asi zan. Abots ituaz esaten ebala.

—Eure alaba kutuna nun ete da? Bera barik atsegiñik barriro izango ete dot! Ala beñolako zemakuna beteko dok. Lamiñatzar orrek, mutil gaztia ... artaldeaz etxerantza netorren bazaldiko bildotsik ederrenak eskatu eustan; eta emon ez neutsozalako, sekuleko irañak eginda, izango neban alabarik kutunena oztutiaz zematu ninduan... ¡O illargi eder-ederra! Zeu baño askoz ederrago ta andijagoa dan Jauna'gandik, barriro neure alabea ikusteko atsegiña lortu egidazu... ¡Ortzeko izar politok ostendu zaitezee, agure onen begiak eztabe atsegiñik eta...!

Aita negarrez zoratu biarrian ikustian, mutilla asko tamaldu zan; eta Arridu'ko etxagun gaztea lagun artuta aitaren aurrera aurkeztu zan. Eta esan eutson.

—Aita, gaur gabeko amabijetan Kobagorri'ko lamiñak Iñunganen jai andi bat ospatzen ei-dabe. Ta Arridu'ko Atxiñ lagun dodala, gabeko amabijetan mendi orren inguruan izango naz; ta zeure alaba kutuna guztien ganetik etxeratuko dogu.

Eta mutil bijak agurearen aurrean belaunikotuta eskuan mun egiñaz agur egin eutsoen. Orduan agureak, itxaropen sendoaz biotza poztuta, mutil bulartsueri esan eutsoen.

—Neure alabeaz etxerantza zatozeenian, illargi mosu zabalak berarizko argiz zeuen bideok argiztuko al-dituz; ta ortzeko izar guztiak neure Onetxu kutunaren omenez, margo ederrakaz dizdira politak egiñaz, gauaro zoragarri bat izango al dozue...

Berba oneek entzutian, Arridu'ko etxagun gazteak agureari begiakaz itz egin eutson... eta agureak buruagaz baietz erantzun eutson...

Gabeko amaiketan abijau ziran mendirantza, ta amabijak baño len, Iñungane baño gorago egozan. Eta lamiñak noz agertuko zaiñ landa eder baten jezarri ziran. Gabeko amabijen dangadan zerbaiten zaratea entzun eben eta euren begiak Amilla'rantza zuzendu ebezan. Amilla-zelai ederretik lamiña pillo andiak Iñungane alderantza joiazala ikusi ebezan. Eureen artian batzuk panderuak joten eta beste batzuk abo-soñu politai ots eragiñaz, urrengo abestiak abestuaz mendiratu ziran.

Guazen guztiok
Aldatzak gora
Gureñe dantza
Gaur egitera.
✤ ✤ ✤
Izar jokuan
Jolastuko du
Barrerik asko
Egingo dogu
... ...
... ...

Kanta, ujuju ta santzo askoren artian euren jolas bakanak atondu ebezan. Iñun diran dantzak eta jolasak egiñ ondoren, izar-joko politean asi ziran; lamiña guztiak ara ta ona ikotika ta saltoka ebiltzala ikusten ebezan. Onetxu be, jantzi apaiñ ikusgarri bat soñian ebala, izar-jokuan jolasten ikusi eben. Orduan, mutil bijak men dijan belaunbikotu ziran, eta illargiari biotz apalez arren egiñ eutsoen.

—¡Illargi eder-ederra! Zeu baño askoz ederrago ta andiagoa dan Jaun altsua'gandik geure biotzak indartu egizuz...

Illargia, mutilleen arrenaz bere Egilliana juan balitz lez, iroen batzuetan ostendu egin zan. Inguru ta bazter guztiak bat-batez illundu ziran; ixiluna bakan eta itzala izan zan. Mutil bijen biotzak bildurrez dardar egiñ eben... Alako baten illargi betia iñozko argien agertu zan; eta gabak egunaren antz osua agertu eban. Goitiko argi berarizkuak biotzak adoretuta, Goitsu ta Atxiñ lamiña artera jatsi ziran; eta eskuetako makilla sendoakaz, lamiña guztiak il ebezan.

Onetxuk, bere nebea ikusi ebanian, pozarren zoratuta lez beraganatu zan eta maite-maitero besarkada andi bat emon eutsozan.

Gero, iru gaztiak mendijak bera etxerantza abijau ziran; eta abesti ta santzo askoren artian, goizeko lauretan etxeratu ziran. Aitak, alabea etxian ikustian poz andija artu eban, eta maitero laztanduaz, bere malkuak alabiaren arpegi gozoan legortu ebazan...

Andik illabetera Bolunzulo'ko alargunak bere alaba ona Arridu'ko mutillari ezkontzaren bitartez beretzako emon eutson. Auzo ta inguruetako yentea batuta, eztegu eder eta alaya egiñ eben. Eta luzaroetan ederto bizi izan ziran.

MAÑARIKO

ERRIETATIK

DONOSTIA

KIRIKIÑO'REN (G. B.) OMENEZ

... azkeneko egunian bi urte betera, euskeraren langille zintzo, ta ... argi, gure Kirikiño maitea ill ...

... urte urrena dala ta, Bilboko Gaztediyak, bai Mañarin nola Du... jai egokiak antolatu ditu.

... beste jai artean, Kirikiño jaio ... etxe berean, arri idazkun bat erabaki dute. Asmo egokia benetan idazkuna, idazle ta abertzale guzien ordaindu naida. Izanik Kirikiño guziak maita biar degun irakasere ortarako arpidea iriki degu, eder orri lagunduaz, gizon zintzo etxean jarri nai dan oroigarri orre maitasuna azaltzeko era izan de...

... emaitzak artu ditut beraren urrengoan emango degu, bitartian, eman ez dezuten euskotar abertzale, euskaltzaleak; zuen emaitzak pozik arartu edo E. Etxea biali.

E. ETXEKO ANTZEZLARIAK ZARAUTZEN

... igaro dan larunbat gabean, ... irtentzeko gau egokia, baña ala ere ... otzak ikaratu, zaraustar euskel... oste aundia bildu zan "Cine Mo... Donostiko E. Etxeko antzez... antzeztu biar zuten "Neskazar" ...

... algara ta txaloa antxe. Ta ez di... oraindik pozaldi abek amaitu. ... gabean, berriz beste antzoki jai bat ... berak emango degu. "Mutil... ikusi nai omen dute, ta "Mutil... antzeztuko da gau gabeko zortzi ... Zarautzko antzokian. Gogokua ... izan zan, "Mutilzarra" ere ... izango dala uste osoan gaude. ... ondizutela Zaraustarrak!

E. ETXEKO JAIAK

Biyar, amabi garren antzoki jaia Eusko Etxean antzeztuko da Alzagaren "Tantarrantan" iru ekitaldi ditun antzerki parreragillea.

Arratsaldeko bosterditan.

SEBASTEN DEUN EGUNIAN

Gure uriko zaindari eguna dala ta, "Orfeon Donostiarrak", eusko antzoki jai bat bere areto ederrian antolatu du.

Antzoki jai au E. Etxeko antzezlariak "Bost urtian" bi ekitalditan, ta "Ezer ez ta festa" batian, antzeztuko dute.

Beti dira pozgarriak, bazkun abetan egin oi diran eusko antzoki jaiak.

"EUSKALTZALEAK"

Aste artean, Sebasten Deuna egunerako, "Euskaltzaleak" eratu ditu: goizeko 11'an Eusko ikaskuntzan "Kirikiño saria" ren sariketa.

Euskel idazlan onena saritu ondoren, euskel idazle batzaren lendakari dan, Labayen dar Andoni, idazle ta abertzale jakintsuak, euskel itzaldi bat egingo du.

Arratsaldeko 5'an Kursal antzoki apañ ederrian, Gernika'ko "Elai Alai" taldea izango degu.

Gernikar ertilari "Elai Alai" taldea, izen aundiz datorkigu. Aben izen ospetzua ondo irabazita dutela, ikusi duten guziak diote ta abek ikusten oste aundi aundia izango dala uste degu.

Orlako jai ederrak, ez dira nai aña izaten ta.

Ongi etorri Gernikar azkarrak, orain arte izan zeraten toki guzietako eran, Donostin ere, gurendatsu ta euskotar irtentzea opa dizuet.

"ALGORRI"-RI

Anei esker lagun zintzo ori, zure zorionagatik. Jaunak dizula zuri ere, urte zoriontsu. ta guztizko osasungarria.

NASTU TA LABUR

Deun Joseba egunian, urteroko antzoki jaio. E. Etxeak egitea erabaki du.

EUZKALDUN SALEROSLEAI

Idazle gorengo askori zor, euzkel atal onek lortu daben edertasunak iraun dagian EUZKADI onek euzkerazko iragarki edo anuncioak emetik aurrera agertuko dauz. Bazotxak gura da en zatian edo tamañuan eta gura daben eran agertuko dira, baita bakotxak gura daben egunean be.

Onexek izango dra saneurri edo presiuak:

Illean iragarki bat, lerroko edo lineako, 0,75 laurleko.
Astean iragarki bat, lerroko, 0,50.
Astean iru iragarki, lerroko, 0,40.
Egunoro iragarki bat, lerroko, 0,30.

Guztiak oartuten dagoz iragarkia izan daitela lerro gitxikoa, txindi emon bearra bere txikerra izan daiten. Orrela luzaroagoan iruan dagike iragarkiak.

Iragarkiak eztau bere zabaldu bearr lerro askotan eukiten, sarri agertzean baño.

Antzoki jai aundiya Muñoa jaunaren ikastolako mutiltxuak igandean antzeztu dute.

Deun Agate abestiak kalez kale abesteko "Euskaltzale" Gaztedia gazte eske dago.

Egutegi euskotarra E. Etxean salgai dago.

Baita "Abarrak" ete beste liburu batzuk ere.

Bazkide askok astuta duten E. Etxea, lengo lekuan dagola, P. Alameda, 7, 2.ª

ATARRENE.

BERMEO

ITXASOTIK

Oraintsu dala aste bi, gure anaidian ipiñi dauskun, laterri itxas artezkari batzak radio deritxon tramankulua, eguraldi txar edo ona noiz dagoan jakiteko. Bein bat ederki igardetzo lenengo aldian, zelan astartez ekatx gogorrak igaroko dirazala gure itxas bazterretatik, alan izan be ze iru egunenetan, ez diraz itxasoratu untzirik. Uste dot tramankulu au mesede andikoa izango dala, urrunian egaluzetan gabiltzaneko.

NASTIA

Burruka gogor bat izan da atzo zine orduan emeko gaztiakaz. Errazoia bere andia dekoie gaztiok, ze diñoe eurok zelan zine jaubiak esan dabe, urte barritik gora merkatuko dabela saarrerak, da, dana guzurra. Zio onegaitik zan burruka onena. Ekiñ mutillak bildur barik ezaituze jango ta.

EDURRA

Lenengo aldiz gure mendi tontorrak aurten edurrez beterik ikusten doguz aguratxuan antzera euron buruak zurituta, baña eguraldia neikua berotu da.

DUAZANAK

Igazi dan astian, Madrid'ko ikastetxe nagosira aldegin deuskue gure lagun andi dirazen abertzale zintzuak. Ispizua'tar Miren Joseba ta Eleizalde'tar Miren Koldobika, baita 16'gn. juango da Cadiz aldera, erriko txistulari ospatsua dan Larrañagatar Jon.

Guztiori nere biotz agurra ta atzerritik zorionian ibilli aberriagaz aztu barik.

URKIDI.

EUZKELDUNAI

Euzkelduna: Orri onetan iragarkiak ipiñi dabezanen etxeetan erosi egizu. Euzkeraren adizkideak dira. Eurak gura dabe orri oneri lagundu, txukun urten urten Jagian. Zeure poza agertu egiozuc euren etxeetan erosita, eta esan guztia! EUZKADI'ko Euzkel Atalean ikusi dozuen iragarkiagatik erostera etorri zariela.

LEXONA

EUSKO LANGILLEAN BATZOKI BARRIA

Iragarrita egoan lez igazi dan igandian zabaldu da erri onetako Eusko Langillean Batzoki barria. Goizeko amarrak baño lentsuago erriko txaunburu Etxeandia jaupa jaunak gelak onetsi zituzan. Gero amarretako jaupara jon giñan. Onen ostean eta Batzokiko areto nagusian zabalkari sutsua dan Agirre'tar Joseba Andoni'k itzaldi murari andikoa egin eban. Ainbat bider galerazo eutsen itz egiten notintzaren txalo ugarijak. Onegaz Agirre nagaz, ainbat dira gure bazkunak emon daituzan itzaldijak, baña onelango abertzaletasuna agirikorik bat bere ez. Eta itzaron daigun urrengori zeinetan gure Izaurietak bere jakiturigaz zer edestuko euskun. Eta geroago Robles Arangiz'ek eta Basterrak eta abar...

Zori onak bazkunako artezkariari eta bardin itzlari bikañari zeuron aberriganako amodio gaitik.

Gero ezpata dantzari eta olerkarik ikusitan jon giñan.

Ikusi gendun gure aldra gertu dagola ederto egiteko eta poztu egitenaz orrelan izetegaitik. Azkenerako banoa olerkarien lana erakutsiten. Lenengo gure Llona'k agur eginda gero emon eutsan ondo etorria Bermeoko Uriarte'ri eta ara emen sekulako itz naurtu ederrak alkarren bidaldutan onek biok. Oso txalotuak ziran euren lana amaitueran eta bai bitartean bere. Gero ordu batak eta laurenak edo ziran bazkaldutan igon gendunean eta ber tan batu giñan berrogeta bost lagun. Ederto eginda egon janarija eta ugari. Au dalata berton egon ziranak oso poztuta urten eben. Zorionak bazkunari eta opa dautsoguz urte askoko bizitza eta irabazteak.

GEXOTUTA

Aspaldijan dago gexotuta gure adiskide eta euskel idazle argia dan Atxalandabaso'tar Lontzi "Artatza". Len baizen len geure ganatuta ikusi gura neuke eta osatu adiskidea.

AGUR

Lenago edestu dodazan jaiak dirala ta etorrita emen euki doguz igandian geure lagun euskel idazle azkarrak diran "Torkatiko" "E. L. B." eta "Txori", au Erandiotarra, eta Getxotarrak arek. Onegaz bigarrenez da emen egon zariena eta ez dogu euki alkarregaz amaiketako artutako astirik bere eta asketsi dezu be irurok eta ia neuk deituten dotsubetenean zarien ordun uste dot eukiko dogula asti obea eta. Agur.

DEUN AGATE ABESTIAK

Beste leku batzutan ikusi doguz aldrak Deun Agate abestiak ikasitan eta erri onetan ez dot ikusi arean. ¡Zer egiten dabe Eusko Langillen aldrak? ¿Gogait egon da dagoz ala? Bestelan asi leiteke ardura barik ikasitan ze ganera dator eguna. Uste dot datorren asteko astelenean asiko dirala baña itzkai barri eta ... bere barrigaz. Alan da eze, ikusiko doguz datorren astean zeinbat gazte batzen diran eta zelango amodioagaz. urrera geure ekandu ederran alde.

BESTEA.

¡¡¡ Eup !!!

Edari-ugorkitsu (licores) ta edari gozatzuen (jarabes), egin-etxea. Ardao biñuen biltokia.

Bilbon, calle Nueva, 3.

Suárez Llaguno

ZUMARRAGA'TIK

IZPAR BELTZA

Jaunaren besuetan il da Sarobe'tar Elazar gizona, gexo zital baten ondoren.

Ezaguna errian izanik. Tamal aundia eman du bere eriotzak, ondo ikusirik bere il otoitzetan batu zan ostiakin.

Bere alargun Andoni'ri eta bere seme alaba Danel eta Kasilde'ri gure laguntza leiala beren atsekabian. ala beste bere sendi guziari, eta zuen siñismena izan dezazutela alaigarri ordu latz auetan. Goyan bego.

KIRIKIÑO'N OMENEZ

Bilbao'ko "Euzko Gastedijak" eraltzen dituan jaietarako pozik gaude Mañari aldera juateko, gure irakasle Kirikiño maitian gogo alde otoitz egiteko. "Zar-Zale", "Erbindura" eta beste asko uste degu jungo gerala goierri alde ontatik, eta bere jaietarako arpidia, iriki degu emen, ara:

Altzeta'k 2 lauerrialeko, badakizue Kirikiñon maitaliok nun artzen degun txindia.

ANTZERKIA

Datorren jaian irikiko da lenengo aldiz emengo Eliz-Etxea, eta bertan antzerki polit bat botako dabe Koldobikatarrak, erderaz. Zer esanik ez poz aundia dagola bertara juateko.

LAPURRETAK

Aspaldi ontan lapurretak ugaritzen dabiz uri ontan, bai dendetan eta bai oiotegietan, poztuko giñake bateron bat jausia, ba sarritan uste izaten da batzuk dirala eta gero bestiak izan, agintariok begiak argi, eta ia aixari ori nun jausten dan.

ALTZETA.

NOK LAZTANDU EZ...

Larrosa zuriaren orriak dirudi
zure irribarre orrein poztasun leunenak.
Negar-egunak zear igaro direnak
gorantz begitzen dabe izarrari adi.

Eldu yatzuzan zeure naigabe aldiak
iñoren pozgarririk ez eutsuen euki.
Igaz egiten eben arro eta andiki
zeure irudimeneko maitale guztiak.

Baña begitxu orrein anpulu bigunak
kendu dautzuz gogoko oñaze astunak.
Larrosa-zear zoaz argi ta gozaro...

Egun orotan ezta zeru-ozkarbia
negar dagien biotz danen osakia.
Beti loretan dira arantzak idoro!

MOTXELA.

URKIOLA

BEDERATZIURRENA

Igaro zan barikuan asi zan San Anton'en bederatziurrena beren egunian amaituteko; ospatasun andiagaz egiten dira Eleizkizunak. Beren egunian goizian-goiz asiko dira mezak amarretan azkena dala, ta entzun dogunez meza nagusi ortako itz-aldia Markaida'tar Imanol abade jaunak egingo dau: len bertan egon zanak, ta orain Plenzia'n txaunburu-lagun daguanak. Poztuten gara. Bederatziurren au egiten emen aurkituten dira Muxike'tik etorrita Garabieta'tar Paule, Egilor'tar Bitore, Elgezabal'tar Eusebe ta Beaskoetxea'tar Jakinda mutil zintzo eta argia; Aramayo'tik etorrita Errasti'tar Mikel gizon ona; guztiak otoi ugariak egiten dituez.

EZKONTZAK

Igaro dan eguenian Deun Andoni'ren Eleiza eder onetan ezkondu ziran Garate'tar Andoni Irazola'tar Domeke'gaz; ta Irazola'tar Polentzi Garate'tar Imanole'gaz; bitzuak neba-arrebak, Aspe ta Abadiño'kuak. Zorionak.

ITXAROTEN EGON GARA

Aspaldi onetan egon gara ikaraz noz elduko ete dan urtero gurekin izaten dana; ikaraz egon bagara ze, eldu da elduteko ori; Urkiola ta inguru guztia edurtza aundiagaz apainduta da. Durango'tik urten da emen ziar doyazan belbillok estu eta larri aurkituten dira Txakurzulon gora edurra ebagi cziñik; baita gure artzañak alde dabe euren arditalde ederrakaz be-aldeko lurmenetara.

ANBOTO-BARREN.

EGUNEKUA

Euzkadi'tik

EUZKEL IXENAK

San Salvador del Valle'n Ezkontrilla'ko txadon nagosian ugutzau zan Andoni ixenagaz Juaregi'tar Eludor'en semea, erri artako Uri Buru Batzarreko lendakaria. Zorionak guraso euzkotarrai.

Barakaldo'n Garbiñe ixenagaz ugutzau dabe Donosti'tar Imanol eta Garcia Uraga'tar Damiane'k euren alaba jayoparria. Garcia Uraga'tar Jakinda eta Donosti'tar Peliziane izan ziran aitamabitxiak. Zorionak abertzle onai.

Azpeitia'n abertzale zintzoa dan Epeldetar Andoni'ren emazteak izan daben aur barriari, ugutzatzerakoan Iñaki euskel-izen polita ezarri dautse. Ame-semeak onik dagoz. Zorionak.

Galdakano'n Kepa izena jarri dautse Urizar'dar Pantzeska eta Uriarte'tar Kasilde euzkotar zintzoak. Umearen aitita, Urizar'dar Kepa eta Lekanda'tar Nekane'k bescetan artu eben. Geure agurra agertzen dautsegue lerro onein bitartez.

BERGARA'N BURU GELDITUTAKO NEXKA MUTILLAI, DEIA

Santo Tomas'etan Donosti'ra etortzekoak ziñaten txiki maitagarriak, gurekin asarre izango ziñaten noski ezezkoa iritxi zitzaizutenean.

Baña gaur... ¡ezetz, apustu!

Santo Tomas'ak juan ziran ba, ta juandakoak poz gutxi eman oi dizute txikiai. San Sebastian berriz badator: datorren astearteean dezute. Ta len etortzerik izan etzenutelako, San Sebastian egunez gure artera ekartzea erabaki degu.

Badakizute ba, txikiak, astearteaan Donosti'ra. Erri bakoitzetik laguntzalle bat betor zuekin. Goiz xamar etorri, al dan astirik aundiena Donostia'n egin dezazuten. Esan laguntzalle dezutenari gaur bertan "Neri", "El Día"-ra idazteko zer garaltan eta zain bidetatik elduko zeraten Donosti'ra. Gaur idazteko ¿aitzen?

¡A zer eguna bota bear dezuten!

Eguartean meza entzun, tanborrada ikusi, azterketa itxura bat egin eta bazkaitara.

Arratsaldean batel-estropadak, Aquarium ikusi. Ta amaitzeko... ¡au ze bai ederra!... amaitzeko

ELAI-ALAI

Kursaal'eko Antzoki apañean ikustera. ¡Ez du gero au nornaik ikusiko! Amaikak gelditu bear du sarrerik gabe ¡Bai aldakizute zenbat sarrera saldu ziran atzo! Asko... asko...

¡Jesus! ¡A zer eguna bota bear dezuten Deun Sebasten'ena Donostia'n!

"KIRIKIÑO" ZANAREN OMENEZ

Guztiak erantzun dautse "Kirikiño" zanaren omenez egiteko jayerako egin dan deiari. Eta bidezkoa ezeze egin bearrekoa be badala deritxagu gizon ospetsu aren alde zer edo zer egitea. Bera izan zan egungo egunean eurrez idazten daben idazleri guztien irakaslea. Egunero, egunero azia eraiten eban izparringi onen orrietatik, eta bere arrera ona ta guztienganako maitasuna agerturik ezkoen ele alde amaikatxu zaletu ebezan.

Jaioeta il zan etxeetan arri batzuk ipintea ezta gauza andirik ba. Datorren illearen asikeran jai ori egingo da andikiro. Euzko Gastedijakoak eta beste abertzale asko bide diraka. Durango aldekoak beartaenak dagoz egun aretan abertzaletasuna agertzera. Atzo esan genduan legez "Kirikiño" zana "Bigarren Abarrak" salgai ipiñiko dira abertzale bat bere ezdaiten geratu liburu eder ori erosi barik. Biotza poztuteko eta euzkera samurra, erritarra ikasteko, berebiziko liburua da orixe. Peseta bian nok erosi ez? "Kirikiño" andia gomutea bizirik gorde daigun, bere liburuak irakurriaz.

IRUÑA'KO ABESLARIAK

Mugika andiak artestuten dabezan neska eta mutil aldra abeslariak gurenda entzungarria lortu dabe Madrid aldean euren abestiakaz. Txindi arazoetarako esan izan gauza andia lenengo entzukerea baña txaloak entzun ebezan naiko.

Yenteak jakin eben zelakoak ziran abeslari jayo oneik eta zaletu ziran arin Monumental Cinema goi goraño beteturik. Paris, Madrid eta Iruña'ko endoreak antxe ziran eta pozik geratu bere. Paris'ko Castellanes endore jaunak Iruñakoari esan eutson aldra abeslari ok Paris aldera eroan bear dirala.

Julio Garcia "La parabola del sembrador" deritxon eresiaren egilleak iñoiz ez ebala uste izan alan bere eresia abestuko zanik esan eban. Berak gura ebana agertzen izan dabela abeslariak. Baña atsegiñen izan yaken Usandizaga andiaren "Umezurtza". Lenengo atal ostean Mugika jaunak batu ebazan neska aldrak txaloak entzuteko. Jarlekuetatik asko geiki ziran txaloak joteko. Mundu guztiak goratu dau abeslari onein lana eta uste dogu gurenda onek zaletuko dauzala aurrera ekin dagien olde onez.

"OLDARGI"

Gaur gabean agertu dau "Campos Eliseos" antzerkotokian begi begiko yakun "Oldargi" abertzale eta elertizalea. Guk esan geikeana esan dabena yenteak onetzaz uste dogu Euzkadi'n gitxik beragaz neurtuteko añako gauzarik agertu leikiela. Eresiak eta ikusgarriak euzko izakereaz batera egiñik dagoz. Bilbao guztiak zale bizia dago "Oldargi" ikustera joateko. Bat ezdaitela geratu ori ikustera joan barik. Aberria goratuteko olakoak lantzean bein egin bear dira.

ten asi da, batez bere, Españia'ko lurraren itxuragaitik.

Eguzkiaren etziñaldetik asi dan aize-ustuak, aldatzen dau barriro eguraldia Españia'n, otza eguzkiaren etziñaldera uxatur. Beraz 15'garrenetik Iparraldeko otzaren ondoreak galdu dira Europan.

AUTESKUNDEAK

Auteskundeak urrean dirala-ta politiku aldratxuetan marmar diardu yenteak, Gobernuaren asmuetaz.

Ondo yaubetuta dagozanak diñoenez, zezeillaren 'garrena baiño len azalduko ei da auteskundeetarako deia ta erabagia, ta gobernuak guda-legea kenduko ei dau, ta Laterri-legezko eskubideak emongo ei dauz.

Baiña eskubide onegaz yentea barriro oporraldi ta zarata asten bada, barriro gobernuak lege, gogorrak zabalduko ei dauz guda-legepean, eta alan egingo dira auteskundeak.

Ganera, Gobernuak kenduko ei dauz errege-erabagiz egiñiko alkateak.

Gaur larunbatez yardungo dau ministru-batzarrak gauz oetaz.

ALDERDI BAKOTXAREN GORABEREA

Errepublikanuak ez ei dabe yoko auteskundeetara bein beingoz, adierazorik daukienez, eurek eskatzen dabezan zertzeladak betetan ez ba dira.

Sozialistak sartuko ei dira auteskundeetan yarei izten ba ditue, ta aurretik euren alderdiaren Laterri-batzarra egiteko asmuetan dira.

Laterri-legearen aldekoak bere sartuko ei dira, oztoporik ipinten ez ba yakie.

Alhucemas'ek agindu edo aginduko ei deutse bere alderditarrai, arren, ez yoateko auteskundeetara, guda-legepean edo legaren eskubide barik, gingo ba lira.

Oneik olan izate ezkero, auteskundeak porrot egingo ei dabe.

CATALUÑIA'KO LEGE-RASKIÑA

Madril'dik. Auzi-yauregian batu dira Cataluñia'ko lege-eraskiña azterten diarduen batzordekoak. Bertan ziran Cierva, Goikoetxea, Silió, Ubera, Melgarosa, Abadal, Rios, eta Diaz Benito.

Datorren astean beste batzar bat egitea erabagi eben.

KAIKO LANGILLEEN AUZIA

Oporrean dabiz oindiño 160 kaiko langille, makalloa ontzietatik ataraten bear egiten dabenak. Atzo Noduega'ko ontzi bat etorri zan makalloz betea, ta eurek uko egin eben lanerako.

Ontzi-burua agintariekana yoan zan, eta esker one zartu eban muga-zain edo karabiñeruen buru-ordeak agindu eutson laguntza.

ESPETXETIK ATARA

Bartzelona'tik. Atxilotuta egozan batzuk euren eskuko itzi dabez bakotxak autorpena emon ostean: Maurin komunistea, Piñol ikastuna, komunistea au bere, gudari-epaikariak yarei itzi dauz.

Epaikari onek berak baimena emon deutso Pestaña'ri yenteagaz artu emona izan dagian. Oiñarte debekatuta eukan.

Euzkal Orri onen irakurleak, ain maite daben izkuntzaren aldez egiñiko agurtzat artuko dabe euzkerazko iragarkiak ipintea. Saleroslcak ulertu bela ondo.

Atzerrietatik

WASHINGTON

Edarien aurkako lagia Laterri Alkartuetan gordeten dabenak diñoenetik urte batean epaikerian aurrera agertu dira 236 notin geyago bestetan baño. Onelako notiñak geyenak oitura txarretakoak izaten dira.

CIUDAD DEL CABO

Siondarrak egin daben batzar baten erabagi dabe Ingalanda'ko atzerri arazoan ardura daukon ministrua eztala gai Palestina'ko gauzak zuzenduteko eta beste atzerritar arazoak bere gain dakozana autu dabe. Smuthis'ek esan ebazan gauzak arren siondarrak sute dabe euren arazoak aurrera doazela.

BATAVIA

Errisak opalduten dau azukerea Javakoak baño asko merkeago eta ori dalata egin dabe saleroste erabagi bat. Errusitarrak bialdu dabez opalkunak trust ek baño bere askoz bere merkeago saldu gurarik.

RIGA

"Times" izparringiak dakar izpar bitartez jakin dabela-ta Leningrado'ko agintariak bialdu dabezala erritzañak olaeta askotara egia ete danentz jakiteko, langille askok eztabela lanik egin gura bost egunean astero atsedenik bage. Uste dabe askok gairik eztaukelako lotzen dirala ola asko.

BRINDISI

Walter Babba, 73 urteko buruzagia eta bere emaztea izango zana Modugra, 70 ezkontzera joatean il dira. Bayetza esatean buruzagia bertan bera ilta geratu da, burura odolak igonik. Emaztea ikeratuta jausi an lurrera eta laster il zan.

HABANA

Izpar bazkun bat lotu dauz Moscov aldetik eldu diran idazki batzuk. Habana'ko komunistari zuzenduak ziran karta orreik laterri orretan matxinada bat egiteko. Euretan emoten dautsez era asko matxinada ori egiteko.

LONDON

Gales'ko errege gaia eta bere anai Joseba urten dira Paris aldera egazko agaz batean sartuta. Eurena dabe egazkari ori eta benean eldu dira Paris'era.

—Vikers Armonstran olaetan Españia'rako kañoi andi batzuk egiten ari dira.

Españia'ko itxas ertzak jaboteko izango dira kañoi oneik eta orain arte gobernu batek eztauz orrelako kañoiak eskatu. Bakoitza 80.000 milla libra sterlina kostauko dira. Ingalandako ingenieruak etorriko dira kañoi orreik ipintera. Bakoitzak 78 tonelada daukez eta oñaz ostera 18.

Españia'tik

OTZAREN ITURRIA

Madril'dik. Eguraldi-igar-etxeak onako argibide au emon dau:

Europaren Ipar-baltza aldetik (Baltikotik Españia'ra) datorren aize otz-aldia, atzeraka doa. Aditzen emon daigun, ill onen bigarren egunetik asita oiñarte izan dan otzaldiaren barri. Urtarillaren bigarrenean, Rusia'ren Iparraldeko aize otza tokika dabil, lenik Baltiko'ra, gero 7'garren koska edo gradutik 9'garrenerañо, Europa'n dabil, lerziria lez Prantzi'tik, Italiaren gaiñaldetik Españiara Aragoan eta Cataluñian zear sartzen dala.

O'garren koskak, illaren 9'garrenean artzen dau Españia ia guztia, ta gauza yakiña, mendi ta goietarantza otza ta leia andiagoak izan dira.

Illaren 10'garrenean atzeraka asi da otzaldi ori Europaren erdirantza. An aro-neurkiñ edo termometruak 7 ta 8 koska o'pean erakusten ditu. Españian ostera, leku goietan ezik, o'tik gorako aroa da. Au ta guzti bere, zerua garbitzen asi dalako, Españia'ren erdirantza aroa otzago-